

## Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

# Kolonbiako ikatzak soberan ditu Wayuu andreak

Terrorismoaren eta narkotrafikoaren kontrako gerraren aitzakian, Kolonbian meategietako enpresa handiek gerra zikina (eta pribatua) erabiltzen dute beren kontuak borobiltzeko. Wayuu herriaren kasuan, munduko harrobi handiena eraikitzekeo zanpatzen dituzte bertako herritarrak.

### WAYUU EMAKUMEAK PARAMILITARREI

aurpegi egiten hasi zaizkie, eta herri indigenak mobilizatzen ari dira beren lurrazpiko aberastasuna osten duten multinazionalen aurrean”.

Hitz horiekin hasi du artikulua Giuseppe de Marzo-k Italiako *Carta* aste-karian. *Il Manifesto* egunkari komunis-taren enpresa berak plazaratzen du *Carta*, edukien zati handi bat “ez-albiste-ci” eskaintzen diena, altermundialis-moaren, gizarte mugimenduen eta elkarteen jarraipena eginez. Ordu erdi-ko irrati emankizuna ere ekoizten du astero, zenbait irrati txikik eskaintzen dutena. Giuseppe Marzo Italiako mugimendu ekologistan ezaguna da, Amerikan egonaldi bat baino gehiago egin du, eta *Carta*n kontatu duena Kolonbiara ONIC (Organización Nacional Indígena de Colombia) era-kundearekin egindako bisitan ikusita-koa da.

Marzok kontatu duena Kolonbiako bazter bateko bizimodua da. Kolon-bian bortizkeria ez da sekula eten. Bortizkeriaren protagonistak gaur batetik, Bogotako Gobernu eta para-militarrak dira, eta bestetik, 1970eko hamarkadan sortutako gerrillak. Baina guztiok ere 1940an sutu ziren borro-ken oinordekoak dira. Kolonbiaren irudia horiek sortutako albistek itxu-ratzen dute, drogaren produkzio eta trafikoaren ingurukoekin batera. Baina Kolonbia multinazionalak ustiatzen

du ten meategi erraldoia ere bada. Hemen bada petrolio, ikatza, urrea, esmeraldak, zilarra, nikela, burdina, kobrea, beruna eta beste zernahi mineral. Horiek lurrari erraieztatik kendu eta esportatzeko Alvaro Uribe-ren gobernuak lege berriak erabaki ditu, bertako meatzari txiki eta ertain-ak multinazionalen aurrean larru bizirik utzi dituztenak.

Korporazio horietako batzuek estutu dute beren esku artean Wayuu indiarren etorkizuna. Venezuelarekin muga egiten duen Guajira lurmutur idorrean munduko ikatz meategirik handiena ireki dute –El Cerrejón– eta Wayuu jendea handik kanporatzeko mertzenarioak bidaltzen dizkiete kontratistek, hitz bat esatera ausartzen den edonor akabatzeko.

1998tik, etengabeak dira Guajiran emakumeen kontrako bortxaketak, hilketak eta masakreak. Paramilitarrak koadrilatan dabilta batera eta bestera; Bogotako soldaduek batzuetan eziku-siarena egiten dute eta beste batzuetan lagundu egiten diete paramilitarrei. Hori bere begiz ikusi du Giuseppe Marzok, eta gauza bera kontatu dute haien webgunean AEBetako Carolina Peace mugimenduko kideek, solda-duen ondoan arma eta guzti pasea-tzen diren paramilitarren argazkiak erakutsiz.

“Wayuutarren ehiza honek –idatzi du Marzok– helburu nabarmena du:

eskualdeko ondasun guztien ustiaketa intentsiboa bermatzea, gero horiek atzerriko multinazionaleri saltzeko”. Guajiran oraintxe bertan zortzi proiektu erraldoi daude martxan Wayuutarren lurralde sakratuetan.

Handiena El Cerrejón meategia, aurten 28 milioi tona ikatz eman behar dituena. Anglo-American, Glencore, Xstrate eta BHP Billington korporazioek kudeatuko dute 2034a arte. “Ezaguna da Anglo-American eta Glencorek –idatzi du Marzok– Hegoafrikako apartheid sistema finantzatu zutela, eta uste da Kolon-biako paramilitarrei entrenamendua antolatu dietela”. El Cerrejónez gain, mugaren Venezuelako aldetik PDVSA korporazio publikoa gas-hodi erral-doia ari da pasatzen, eta han ere izan da liskarrik. Guajiran badira beste bi petrolio ustiapen martxan, Dibullan itsas portu handi bat ari dira eraiki-tzen, Rancherían urtegi bat, parke eoliko bat etorriko da gero... Dena multinazionalak kudeatuta.

### Jendarte matrilineal zaharra

Lurralde aberatsegian bizitzea Wayu-utarren kalterako izan da. Duela bi mila urte Amazoniara eta Antilletara zabal-du ziren Arawak herrietako bat izanik, Wayuutarrek ehiza, arrantza eta bara-tzetatik bizi ziren, europarrak iritsi eta Guajirako basamortu inguruetara bul-tza zituzten arte.





Argazkiok Carolina Peace mugimenduaren Interneteko gunetik hartuta daude. AEBetako erakunde bakezale horretako hiru kidek nazioarteko beste begirale batzuekin batera bisita egin zieten iaz Bahia Portete inguruko wayuutarrei. Bilkuraren helburua zen 2004ko apirilaren 18an paramilitarrek egindako masakrea munduan ezagutaraztea. Inguruetan oraindik herritarrak bizi diren arren –ezkerreko argazkian ageri da emakume bat Media Luna herrixkan arto-opilak prestatzen– Bahia Porteteko 2.000 herritarrek ihes egin zuten, gau hartan paramilitarrek etxez etxe tiroka ibili ondoren. Hamabi heriotza daude dokumentatuta, baina desagertu gehiago izan dira inguruetan. Gizonak, emakumeak eta haurrak hil zituzten, batzuk tiroka, beste batzuk kolpeka edo matxetez, eta bi haur kamioneta batean bizirik kiskalita. Eskuineko argazkian, iheslarietako bat, emakume gaztea. Wayuutarren ohitura bat darabil –desertuko berotik babesteko aurpegia lurrez igurztea– nor den ezkutatzeko.

Tierra lehorrotan babestuta, ahuntz eta behietatik bizitzen hasi ziren, asko nomada bihurtu, eta horrela luzaz bere-taz ez ziren asko interesatu ez Venezuelako eta ez Kolonbiako agintariak. Wayuutarren lurak Kolonbiako Guajirran –15.000 kilometro karratu– eta Venezuelako Zulian –12.000– daude. Aipatu desertuaz gain aniztasuna dauka lurralde horrek, badira eskualde hezeagoak eta itsas bazterrean klima atsegina daukate. Wayuutarrek bi estaturen arteko mugaren gainean bizitzeari ere atera diote etekina, kontrabandoa tarteko. 350.000 herritar dituen herri mugalari honetatik 150.000 bizi dira Kolonbiako partean.

Wayuu jendeak osatzen du Kolonbiako talde indigenarik handiena. Arakwak familiakoa da haien hizkuntza, *wayuunaiki* deitzen dutena. Familien

antolakuntza matrilineala dute. Hau da, familiaren jarraipena amatik alabara egiten da, abizenetik hasita familiaren antolakizun osoa amaren inguruan izaten da. Gizon bat ezkontzen denean, emaztearen familian sartzen da, eta horren ondorioz, familiak buru gizonezko bat edukitzekotan hau amaren anaia izango da, seme-alaben osaba. Era honetan, emakumeen inguruan familia zabalak antolatzen dira, klan gisakoetan.

*Alanla* edo osaba hori da Wayuutarren artean agintari nagusietakoa. Beste *püchipiü* delakoa da, bitartekari edo epaile lanak egiten dituen, izan gizon edo emazte. Hirugarren agintaria *utsu* deitzen da eta sendagilez gain, sorgin eta apaiza da.

Egitura zahar horrekin atera du bizi-modua aurrera orain arte jende honek,

artzain lanak eginez edo kontrabandoan. Baina urte gutxitan hondamendiak inguratu ditu. Multinazionalak, meategi erraldoiak urratzeko, bertako lurjabeek soroak eta Estatuari eremu komunalak erosi dizkiete. Ez da gehiago lurrik, lanik ez etxerik. Ugaritu egin dira lurren desjabetzeak, herritik ihes egin beharra, hilketak, taldekako masakreak, mehatxuak, bortxaketak... baita lurren kutsadura ere, herrietako jendeari alde eginarazteko. Wayuutarren antolakuntzagatik, gizonekin baino gehiago emakumeekin egin dute topo mertzenarioek.

Paramilitarrek inpunitate osoz jokatzen dute inguru honetan. Hain zuzen ere, ONICeko begiraleekin hitz egitera zetorren Maria Concepción izeneko emakume bati tiro egin diote, eta kotxean berekin zetorrena hil. “Maria Concepción ez da oraindik hitz egiteko gauza –idatzi du Marzok–. Carmenek ekarri ditu paperean bilduta Mariari bezperan egin dioten atentatuaren argazkiak. Zortzi fusil-tiro bere kotxean. Ondoan zekarrena hil dute, eta oraindik Maria ez da bere onera etorri. (...) Komunitateko osasun arazoez okupatzen da buruzagi hau. Mehatxatuta zegoen, herriko agintariek ez baitute nahi osasungintzaz okupa dadin, zerbitzu hori paramilitarrek kontrolatutako enpresek daukate eta eskusibitatez. Wayuu emakumeak gerreroak dira baina ezinegon eta beldur handia daukate. Hala ere, Maria Concepciónen indarra atera du hitz egiteko eta esateko nahiago duela Wayuu bezala hil, hiri handi batean langile merkeen multzoan bukatu baino”.

<http://www.argia.com/nethurbil.php> helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



Produkturik onenak,  
Zinkunegi Optikan

Aukerarik zabalena  
betaurreko graduatu,  
ukipen-lente,  
audiofono eta  
eguzkitako  
betaurrekoetan.

ZINKUNEGI  
OPTIKA

Hemani, 4 - 20004 DONOSTIA  
e-posta: zinkunegi@euskaltel.net  
TEL.: 943 420 624

K A L I T A T E A